

EHUren GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

BI MILA ETA ZORTZIKO EKAINAREN 12AN OSPATUTAKO

EHUN ETA HOGEITA ZORTZIGARREN SAIOA

GIZARTE KONTSEILUAREN AURREKONTU-BEHARRIZANEN
EGITASMOGAI ZIRRIBORROA 2009RAKO

"Gizarte Kontseiluaren Aurrekontu-beharrizanen egitasmogai zirriborroa 2009rako onartzea

2006. urtean Gizarte Kontseiluaren aurrekontuaren betetze-maila % 90,8koa izan zen, Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak 2007ko ekainaren 20an ikuskatu eta onartutako kitapenaren arabera.

2007. urtean Gizarte Kontseiluaren aurrekontuaren betetze-maila % 83koa izan da, Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak 2008ko martxoaren 5ean ikuskatu eta onartutako kitapenaren arabera.

2007rako aurrekontuak barne hartu zituen diruzaintzako geldikinak; haiek Gizarte Kontseilua 1989ko abenduan sortu zenetik metatuta eta ikuskatuta zeuden, 696.736,00€koak ziren eta Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 Plan Estrategikoa finantzatzeko aurrekontuan sartu ziren. Plan nahiz Aurrekontua Osoko Bilkurak onartu zituen 2006ko abenduaren 18an (zehazki, 2007ko Plan Eraginkorra).

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2008ko otsailaren 14an onartutako 2008rako aurrekontuak barne hartu ditu 477.878€ 2007-2010ko Kontseiluaren Plan Estrategikoaren ekintzak finantzatzeko (2008ko Plan Eraginkorra). Hori urrun dago, beraz, Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2008rako hasiera batean aukeratutako egitasmoen 942.000€tatik.

Abian dauden egitasmoak, Unibertsitatearen Plan Estrategikoa eta Unibertsitate Plana aintzat hartuta, Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak bere Plan Estrategikoa berraztertu du eta 2008ko apirilaren 17ko bileran 2009 eta 2010. urteetan garatzen jarraitu nahi dituen taktikak erabaki ditu.

Balioetsitako aurrekontu-beharrizanak

2009rako Kontseiluaren aurrekontu-beharrizanak guztira **1.977.753,95** €koak izan litezke hurrengo balioespenen arabera (Ikus I. Eranskina):

- Langileria gastuak
2008. urterako aurrekontuan sartutako saila (hirurtekoak eta gizarte aseguruak barne) % 4 handitu da.
- Funtzionamendu gastuak
2008. urterako aurrekontuan sartutako saila % 3 handitu da (oraindik ez dakigu zein den urteko XPIren aurreikuspena).
- Gastu arruntetarako transferentziak eta inbertsioak
2008. urterako aurrekontuan sartutako sailak % 3 handitu dira

Funtzionamendu gastuen xehetasunak

Zalantzarik gabe, II. ataleko (Funtzionamendu gastuak) diru-sail nagusia ikerketa eta lan teknikoak dira; izan ere, haiei esker Kontseiluak bere ardurapean daukan eginkizuna bete ahal du. Barne hartzen ditu gastu arruntak (ikuskaritza eta lege-aholkularitza, esate baterako) eta finalistak. Azken horiek dagozkie 2007. urtean Plan Estrategikoak urte horretarako aukeratutako taktikei, zeinak guztira 591.182,76 €koak ziren (Ikus III. Eranskina). Hala ere, 2008ko aurrekontuan sail hau 477.878 €taraino murriztu behar izan da (Ikus II. Eranskina) benetan eskuragarri dauden baliabideei egokitzeko.

2009. urterako Plan Estrategikoan aukeratutako taktikak (2009ko Plan Eraginkorra) 1.200.000 €koak dira.

2009ko TAKTIKAK

Plan Eraginkorraren jarraipena egin duen Batzordeak aukeratutako estrategia hautatuen arabera, 2009ko Plan Eraginkorrek honako egitasmo hauek hartzen ditu barne:

-Egindako egitasmoen eguneratzea (estatistika-urtekaria, enplegu-behatokia eta ikerketa-zerbitzu eta produktuen katalogoa)	120.000,00 €
-Unibertsitatearen ildo estrategikoei lagunduko dieten unibertsitate-ereduak identifikatzea (kalitatea eta kudeaketa)	100.000,00 €
-Gizartearen beharrianak identifikatzea (berrikuntza, ikerketa, ezagutzak eta prestakuntza bizitzan zehar...)	150.000,00 €
-Ikasleek enpresetan egiten dituzten praktikak optimizatzeko baldintzak identifikatzea	90.000,00 €
-Bestelako titulazioetan eskumenak identifikatzea (jarraipena) eta zehaztuta daudenen ezarpena bultzatzea	150.000,00 €
-Sortutako ezagutzaren (ikerketa) emaitzak zabaltzeko prozesu bat sortzea, eta ikertzaileen eta haien jardueren agerraldiak hedabideetan areagotzea (produktu eta zerbitzuen katalogoaren marketingaren jarraipena)	80.000,00 €
-Unibertsitatearen gizarte-funtzioa eta euskal gizartearen garapenari egiten dion ekarpena jakinaraztea	175.000,00 €
-Unibertsitateak gizarteari egiten dion kontu-emateari laguntzea	80.000,00 €
-Unibertsitatearen jardueren adierazle neurgarriak identifikatzea aldizka informazio inpartzial eta objektiboa eman dezaten	120.000,00 €
Plan Estrategikoaren berrikustea eta taktika berrian sortzea	50.000,00 €
Euskarri logistikoa burututako egitasmoak optimizatzeko aldera	50.000,00 €

Guztira	1.200.000 €
----------------	--------------------



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

I. Eranskina

GIZARTE KONTSEILUAREN GASTUEN AURREIKUSPENA 2009rako

I. Atala	
Langileria gastuak	274.635,00 €
II. Atala	
Funtzionamendu gastuak	
Plan Estrategikoa	1.200.000,00 €
Gainontzekoa	446.468,95 €
IV. ETA VI. Atalak	
Gastu arruntetarako eta inbertsioetarako transferentziak	56.650,00 €
GUZTIRA	1.977.753,95 €



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

II. Eranskina

2008ko PLAN ERAGINKORRA

Enplegu behatokiaren gaurkotzea	45.000 €
Estatistika urtekariaren gaurkotzea	12.000 €
Gaitasunen gaineko eskaerak (jarraipena)	100.000 €
Produktu eta zerbitzuen katalogoa (marketingaren jarraipena)	30.000 €
Foro Publikoa	30.000 €
Administrazio publikoen beharrianak identifikatzea	80.000 €
UPV / EHUren baliabide fisikoen inbentarioa	
Unibertsitatearen zerbitzuen eraginkortasunaren adierazleak	60.878 €
Plan Estrategikoaren berrikustea	30.000 €
Euskarri logistikoa	30.000 €
GUZTIRA	477.878 €



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

III. Eranskina

2007. URTEKO GIZARTE KONTSEILUAREN KONTRATUAK

ZENBAKIA / URTEA	HELBURUA	NORI EMAN ZAION	KONTRATUAREN ZENBATEKOA
C.P. 01/07	UNIBERTSITATE-ENPLEGUAREN ESKAINTZAREN GAINEKO BEHATOKI BAT diseinatu, abian jarri eta ustiatu	Novia Salcedo Fundazioa	89.950,00 €
C.P. 02/07	IKERKETAREN PRODUKTU ETA ZERBITZUEN KATALOGO BAT egitea, Unibertsitatearen laguntzaz	IDOM Ingeniería y Consultoría, S.A.	138.232,76 €
C.P. 03/07	ATERA DIREN IKASLEEK EDUKI BEHARREKO GAITASUNAK PSIKOLOGIA, KIMIKA, INDUSTRIA INGENERITZA ETA FILOLOGIA GRADU TITULAZIOETAN gizarteak dauzkan eskaerak aztertzea	BMASI Strategy, S.L.	145.000,00 €
P.N. 01/07	UNIBERTSITATEAREN JARDUEREN ESTADISTIKA-URTEKARI BAT argitaratzea	IKEI Research & Consulting, S.A.	30.000,00 €
C.P. 04/07	GIZARTE KONTSEILUAREN INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA BAT SORTZEA ETA EZARTZEA	Attest	63.000,00 €
P.N. 02/07	FOROA	P.O. 2008	30.000,00 €
C.P. 05/07	KOMUNITATE BIRTUALA ETA WEB ORRIAREN GARAPENA	Idea lehiaketa	95.000,00 €
	GUZTIRA		591.182,76 €